

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Produktuen jasotzea eta prestaketa arduratsua da lehen pausoa. Tokiko biztanleek, elkarte sozialek eta enpresek ekarritako produktuak garbitu, sailkatu eta etiketatu egingo dira, beti kalitate ona bermatuz. Denda fisikoan erakutsiko dira, bisualki erakargarriak eta kategoria egokietan antolatuta, bezeroek produktuak erraz aurkitzeko. Online kanalak erabiliko ditugu, Instagram, TikTok edo Facebook bezalako sare sozialetan produktuen argazki eta bideo erakargarriak partekatuz. Ekimen bereziak eta truke-egunak bezeroak erakartzeko balioko dute, eta komunitatea parte hartzera bultzatuko dute. Logistika planak bermatuko du produktuak kalterik gabe eta puntual bezeroarengana iristea, baita online eskaerak ere.